

# Adingabeak ala transexualak



Rosa M. Martín Sabarís  
EHU-KO IRAKASLEA  
IKUS-ENTZUNEZKO  
GAIETAN ADITUA

**E**z gara inoiz jite bakarrekoak. Nor zara zu? Zer zara zu? Emakumea ala gizona? Ala ez ur eta ez ardo? Goizean matematikako irakasle hori, arratsaldean ingelesa ikasten jarraitzen duzu? Eroskin erosi eta Wallapopen saltzen duen horietarikoa zara? Heldu gabeko mutilzaharra? Ume heldua? Gaztelera bizi den euskalduna? Beti zara bat? Beti berbera? Zenbat izaeretatik migratu zara? Zenbat errealitatetara? Zenbat aldiz aldarrikatu duzu zuretzat itzultzeko eskubi-dea? Ur geldia zara edo ur-jausiko ura?

Normatibitate gabe jendarterik balego... Baina ez dago. Normatibitate guztiak dira zekenak eta berekoiak. Heteronormatibitateak dikotomia inposatu zigun txikitik: neska zintzoa eta apala ala mutil ausarta eta harroa. Gero onartu zen emakume-gizon zintzoak eta ausartak ere bazirela. Ez besterik. Gainontzekoa ikusezin, ezinezko.

Edozein normatibitate at daudenak ikusezinduak izan direlako, aldarrikatu nahi ditut hemen. Hitza eta irudia izateko eskubidea dute eurek, dut nik, dugu guztiok. Nortasunak forma ezberdinak, lausoak, iragankorrak, kontraesanak hartzen dituelako. Nortasuna ez delako inposatzen, ezta saltzen edo erosten ere.

Transexuala. Izena duena da. Jon ala Jone. Garai batean elizako pontean izena jartzen zen bezalaxe, gaur telebistak ipintzen dio izena eta izana jaino berri den helduren bati: Nora, Izaro,

Ares... Euren izenean mintzatzen dira, aske eta askatuta.

Nahiane izen ederra da. Adingabe baten izena.

Adingabeen eskubideak ez daude gurasoen borondatearen menpe, ez eta komunikabideek audientzia igotzeko estrategien zerbitzuan, are gutxiago komunikazio-marketingaren esanetara.

Erreza da hitz-jario handiko adingabe batek transexuala izan nahi duela esaten badu, ikus-entzule kopurua igotzea. Berrogei urteko transexual batek haurtzaroan isilik jasan zituenak entzuten ditugunean, irtenbidea ezin da izan haurra telebistako platoon jesartzea.

Adingabe transexualen guraso batzuen hitzak entzutean, hotzikara sentitzen dut: gonak eta printzesen jantziak, jostailuak, eta ilearen luzera aipatzen dituzte umearen identitate-frustrazioa azaltzeko. Hotzikara, heteronormatibitatearen hamaikagarren ondorio gaiztoa delako.

Baina egia da genero-disforia –genero/sexualengatiko sufrimenduak– jasanezina denean, zerbait egin beharra dagoela. Egia da identitate sexuala ez dela patologizatu behar, baina seguru nago ospitale publikoetako genero-unitateek telebistan entzun ditudan guraso batzuek baino ikuspegi zabalagoa dutela, eta ez dela apetak emandako erabakirik hartzen. Umeei ipuinak kontatzen jarraituko dugunean, argitu ez dagoela zoriontasuna bermatuko dien aldaketarik. Adingabe baten izena eta izana jokoan. ■

## Deboila



Itxaro Borda  
IDAZLEA

**L**uhusoko atxiloketek gauza bat erakusten dute: ETArek akabantza iragarriak saihesten dituzten gizarte zibilari –hemen garrantzi handiagoa lukeen gizarte militar bat bailitzan!–. Iparraldeko bost VIP-ek dute berriketan Parisera joan-etorri polizia egin, ez nornahik alabaina, gu guztion ondoko erakunde klandestinoaren armagabetze prozesuan lagundu nahi zutelako soilik.

Eta euskal mundua, gizon bakar, bildu da beste behin Baionako edo Garaziko karraketan destinoaren garrantza salatzen eta bat-bederak bere gain hartuko zuela, bakearen izenean, desar-

mearen ardura zatia aldarrikatzeko. Deboilaren minean, nehorik ez zuen ETAk euskaldungoari inposatu biktimismo sistematikoa hori zalantzan jarri: urte berri on hargatik!

Amets bat daukat, aurretik ETAk plazaratuko duela bere ekina arras bukatua dela dioen agiria, borroka horrek ez duela ezertarako balio izan airtortuko digula eta aurpegiak agerian, euskaldun arruntak, abertzaleak izanagatik, inplikatu gabe, armak entregatuko dizkiola berak hautatzen duen solaskideari, izan frantses, espainol edo euskal gobernua.

Barkamendu eskatzea halatan ez liteke hain beharrezkoa. ■